

2021 / 2022 Ikasturtea

LINFOMA ETA LEUZEMIA MINBIZIA DUTEN PAZIENTEEN BIZI-KALITATEAN ETA  
NEKEAN ERIZAINNTZA ZAINKETAK BARNE HARTZEN DITUEN JARDUERA  
FISIKOAK DUEN ERAGINA.

[Eduarne Iglesias Conde]



## Laburpena

**Sarrera:** Espainian, minbizien intzidentziaren hirugarren postuan, minbizi hematologikoak aurkitzen dira eta hauen artean prebalentzia altuena linfoma eta leuzemia minbizi motak dute. Minbizia dutenen artean aurkitzen den sintomarik ohikoena minbiziarekin lotutako nekea da eta nabarmena da honek, pazienteen bizi-kalitatean eragin handia duela. Honen harira, jarduera fisikoa, minbiziarekin lotuta dagoen neke hori murrizteko tresna lagungarria izan daitekeela aipatu beharra dago.

**Helburua:** Lan honen helburu nagusia linfoma eta leuzemia minbizia duten pazienteen bizi-kalitatean eta nekean erizaintza zainketak barne hartzen dituen jarduera fisikoak duen eragina aztertzea da.

**Metodologia:** Ikerketa galderari erantzuteko errebisio narratibo bat erabili da eta PIO egituraren bitartez artikuluen bilaketa jorratu da. Bilaketa bibliografiko hau egiteko datu-base ezberdinak erabili dira, hala nola, PubMed, Biblioteca Virtual de la Salud, Dialnet, Cuiden eta Cochrane. Bilaketa mugatzeko iragazkien erabilera egin da eta barneratze eta baztertze irizpideak aplikatu dira. Azkenik, web-orrien bitartez lana osatzeko informazioa lortu da.

**Emaitzak:** Erizaintza zainketak barne hartzen dituen jarduera fisikoko programen artean erabilienak aerobikoa eta indar ariketak direla agerikoa da, hauek jorratzerakoan eta zenbait eskalen bitartez ebaluatu ondoren, aztertu da nekearen murrizketa eta bizi-kalitatearen hobekuntza nabaria dela. Linfoma eta leuzemia parekatzerakoan, bi minbizietan nabaria da jarduera fisikoko programen onura, nahiz eta zenbait ikerketetan hobekuntzarik ez lortu. Horrez gain, programa horien bitartez pazienteen funtzio fisikoa, mina, loaren nahasmendua, antsietatea, egoera psiko-sozialaren, etab. hobekuntza nabarmena da.

**Eztabaida:** Ikerketen emaitzak aztertuta, nabarmena da nekea murriztea eta bizi-kalitatea hobetzea lortu duten ikerketak gehiengoak direla. Gainera, aztertu den moduan, erizaintza zainketak barne hartzen dituen jarduera fisikoko programa zehatza dira eraginkorrenak. Gainera, egoera fisikoan eta afektibitatean duen eragina ere onuragarria da pazienteen egunerokotasunean. Minbizi motari dagokionez, ikerketa kopuruarekin bat eginez, Hodgkin linfomari buruzkoak dira hobekuntza gabeko ikerketa gehienak.

**Ondorioak:** Ikerketen bitartez erizaintza-zainketak barne hartzen dituen jarduera fisikoko programak nekea murrizteko eta bizi-kalitatea hobetzeko balio dutela aztertu ondoren, eta pazienteen eguneroko bizitzan eragin handia duela agerian egonda,

erizaintza-zainketak barne hartzen dituen saio eta heziketa programak beharrezkoak direla aipatu beharra dago. Gainera, era multidisziplinarrean egindako ikerketa gehiago behar direla ondoriozta daiteke.

**Hitz gakoak: Linfoma, leuzemia, bizi-kalitatea, nekea, jarduera fisikoa, erizaintza zainketak.**

## **Aurkibidea**

1. Sarrera .....	1
2. Helburuak .....	3
3. Metodologia .....	3
4. Emaitzak.....	7
4.1. Linfoma eta leuzemia minbizia duten pazienteen bizi-kalitatean eta nekean erizaintza zainketak barne hartzen dituen jarduera fisikoak duen eragina. ....	7
4.2. Nekea eta bizi-kalitatearen hobekuntza ikertzeko lantzen diren erizaintza zainketak barne hartzen dituen jarduera fisiko programa mota ezberdinak aztertzea, hauen intentsitatea eta denboraren arabera.....	9
4.3. Erizaintza zainketak barne hartzen dituen jarduera fisikoak, egoera fisikoan eta afektibitate-egoeran duen eragina aztertzea. ....	11
4.4. Linfoma eta leuzemia minbizia duten pazienteen artean erizaintza zainketak barne hartzen dituen jarduera fisikoak duen eragina alderatzea. ....	11
5. Eztabaida.....	12
6. Ondorioak.....	14
7. Bibliografia.....	16
8. Eranskinak.....	21

## **Taulen aurkibidea**

1.Taula. PIO egitura jarraituz bilaketan erabili diren DeCS eta MeSH hitz gakoak. ....	4
2.Taula. Datu-base ezberdinetako bilaketak eta iragazkiekin lortutako artikuluko kopuruak.....	6
3. Taula. Erizain-diagnostiko eta – interbentzioak NANDAren arabera. ....	13

## **Eranskinen aurkibidea**

1. Eranskina. Haynes piramidean oinarritutako ebidentzia mailaren arabeko sailkapena. ....	21
2.Eranskina. Aukeratutako artikuluetatik lortutako emaitzak.....	23
3.Eranskina. Bizi-kalitatea neurtzeko EORTC QLQ-C30 eskala.....	27
4.Eranskina. Pediatriako bizi-kalitateari buruzko PedsQL galdetegia. ....	28
5.Eranskina. Nekearen galdetegia (Multidimensional Fatigue Inventory). ....	29

## **Laburdurak**

AECC: *Asociación Española contra el Cáncer*

ACS: *American Cancer Society*

BVS: *Biblioteca Virtual de la Salud*

DeCS: *Descriptores en Ciencias de la Salud*

MeSH: *Medical Subject Headings*

NANDA: *North American Nursing Diagnosis Association*

NCI: *National Cancer Institute*

NK: *Natural Killer*

OME: *Osasunaren Mundu Erakundea*

PIO: *Patient Intervention Outcome*

REDECAN: *Red Española de Registro de Cáncer*

SEOM: *Sociedad Española de Oncología Médica*

## 1. Sarrera

Gaur egun minbizia heriotza kausa nagusietako bat da mundu osoan. 2020. urtean 10 milioi heriotza gertatu ziren minbiziaren ondorioz (1). Espainia mailan ere, morbiditate eta hilkortasun arrazoi nagusienetako bat da minbizia. 2022. urtean, REDECAN-en (Red Española de Registro de Cáncer) kalkuluen arabera, minbizia pairatuko duten pertsonen kopurua 280.100-koa izango dela uste da, hau da, aurreko urteetako prebalentzia handitu egingo da (2).

Minbizien artean, Espainian, intzidentziaren hirugarren postuan minbizi hematologikoak daude. Gainera, hauetatik prebalentzia altuenekoak linfoma eta leuzemia dira (3). Linfoma, sistema linfatikoko minbizi mota bat da. Minbizi mota hau sistema linfatikoko T,B eta Natural Killer (NK) zelula osasuntsuak aldatu eta mugarik gabe hazten direnean sortzen da, honek tumore bat sortuz. Minbizi mota hau Linfoma Ez-Hodgkin bezala ezagutzen da. Izan ere, badago linfoma mota zehatza bat linfoma Hodgkin izenekoak. Aldaketa jasaten duten linfozitoak aztertu eta "Reed-Sternberg" zelula mota aurkituz gero, Hodgkin linfoma baten aurrean gaudela esaten da (4). Linfoma mundu mailan neoplasia hematologiko gaizto ohikoena da eta minbiziak eragindako diagnostikoen eta heriotzen ia %3 dira. Ez- Hodgkin linfoma prebalentzia handieneko zazpigarren minbizi da (5). Espainia mailan 2021. urtean 10.582 linfoma duten paziente berri kalkulatu ziren. Hauetatik, 1.527 Hodgkin eta 9.055 ez-Hodgkin dira (6). Leuzemia ordea, hezur-muinaren gaixotasun multzoa da, non globulu zuria (leukozitoak) kontrolrik gabe handituz doazen. Hala ere, batzuetan globulu gorri eta plaketetan du eragina (7). Leuzemia, 2018.urtean 437.033 kasu berri diagnostikatu ziren eta horietatik 309.006 kasu heriotza eragin zuten (7). Bestalde, 2021. urtean Espainia mailan leuzemia duten 6.068 paziente berri estimatu ziren (2).

Minbizia duten edota honen tratamenduarekin dauden pazienteek nekea edo "astenia" bezala ezagututakoa pairatzen dute. Hau neke fisiko, emozional eta/edo kognitiboaren sentazio iraunkor, urritzaile eta subjektiboa da. Hau, ez da proportzionala egiten den jardura fisikoaren ahaleginarekin, eta

pertsonaren ohiko funtzioa oztopatzen du, modu honetan bizi-kalitatea okertuz. Tratamendu prozesuan dauden pazienteen artean sintomarik ohikoena da (kimioterapia edo/eta erradioterapiarekin daudenen %80a), eta hilabeteak edo urteak iraun ditzake (2).

Ikerketa ugari egon arren, oraindik ez dago argi minbiziarekin lotutako nekearen etiologia zein den. Zenbait teoria daude neke honen zergatiari erantzun bat emateko helburuarekin, hauen artean, zitokinen askatze edo galera aipatzen dute, honek aldi berean nekea eraginez. Bestalde, tratamendu onkologikoak ere aipatu izan dira nekearen eragile bezala (kimioterapia, erradioterapia, immunoterapia, zenbait transplante, etab.); izan ere, tratamendu hauek, zelula kaltegarriak suntsitzeaz gain, zelula osasuntsuak ere suntsitzen dituzte (9).

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) dion arabera, jarduera fisiko erregularrak zenbait minbizi mota prebenitzen eta kontrolatzen laguntzen du; gainera, osasun mentala, bizi-kalitatea eta ongizate orokorra hobetu dezake (1). Minbiziarekin zerikusia duen nekea murrizteko ere, jarduera fisikoa tresna lagungarria izan daiteke, hala nola, minbizi hematologikoetan ere, jarduera fisikoaren onurak aztertzea garrantzitsua da, tumore mota hauetan ere, eraginkorra izan daitekeelako. Gaur egun, ikerketa gutxi daude erizaintza zainketak barne hartzen dituen jarduera fisikoak linfoma eta leuzemia pairatzen duten pazienteen bizi-kalitatean eta nekean duten eragina aztertzen dutenak.



## 2. Helburuak

Lan honen helburu nagusia linfoma eta leuzemia minbizia duten pazienteen bizi-kalitatean eta nekean erizaintza zainketak barne hartzen dituen jarduera fisikoak duen eragina aztertzea da.

Bestalde, hauek dira aztertuko diren helburu zehatzak:

- Erizaintza zainketak barne hartzen dituen jarduera fisikoko programa mota ezberdinen bitartez lortutako nekea eta bizi-kalitatearekiko emaitzak aztertzea, hauen intentsitate eta denboraren arabera.
- Erizaintza zainketak barne hartzen dituen jarduera fisikoak egoera fisikoan eta afektibitate-egoeran duen eragina aztertzea.
- Linfoma eta leuzemia minbizia duten pazienteen artean erizaintza zainketak barne hartzen dituen jarduera fisikoak duen eragina alderatzea.

## 3. Metodologia

Garatu beharreko helburuak finkatu ondoren, errebisio narratiboa egin da. Hau jorrazteko, zenbait datu-baseetatik informazio baliagarria atera da PIO egitura erabili da (Ikusi 1. taula).

- **Patient** (pazientea): Linfoma eta leuzemia minbizia pairatzen duten pazienteak.
- **Intervention** (esku hartzea): Erizaintza zainketak barne hartzen dituen jarduera fisikoak.
- **Outcome** (emaitzak): Pazientearen bizi-kalitatean eta nekean duen eragina.

**1.Taula.** PIO egitura jarraituz bilaketan erabili diren DeCS eta MeSH hitz gakoak.

	DeCS	MeSH
P	Linfoma Leucemia	Lymphoma Leukemia
I	Ejercicio físico Atención de enfermería	Exercise Nursing care
O	Calidad de vida Fatiga	Quality of Life Fatigue

**Iturria:** propioa.

Hitz-gako hauen bitartez zenbait datu-baseetan informazioa bilatu da. Hauen artean PubMed, Biblioteca Virtual de la Salud (BVS), Cochrane, Cuiden eta Dialnet datu-baseak erabili dira. Gainera, Google Académico erabili da eskuragarri ez zeuden artikulak kontsultatzeko.

Hitz gakoak datu baseetan sartu ondoren, AND operadore bolearra eta zenbait iragazki erabili dira bilaketa murrizteko helburuarekin (Ikusi 2. taula). Iragazkiak hurrengo hauek dira:

- Argitalpen data: 10 urte; 2011-2021.
- Hizkuntza: Ingelesa.
- Gizakiak.

Bestalde, bilaketa egin eta artikuluak iragazi ondoren baztertze eta barneratze irizpide batzuk erabili dira baliozkoak diren artikuluak aukeratu ahal izateko. Erabilitako barneratze irizpideak hurrengo hauek izan dira:

- Linfoman eta leuzemian oinarritzea.
- Erizaintza zainketak barne hartzen dituen jarduera fisikoak bizi-kalitatean eta nekean dituen onurak aztertzea.
- Emaitzak neurtzeko eskala edo galdetegiak erabiltzen dituzten ikerketak izatea.

Gainera, baztertze irizpideak ere kontuan izan dira baliozkoak ez diren artikuluak ez erabiltzeko, hala nola:

- Beste minbizi mota edo minbizia osotasunean aipatzea, zehaztu gabe.
- Erizaintza zainketak barne hartzen dituen jarduera fisikoko programak edo ariketak lantzen ez dituzten artikuluak.
- Erizaintza zainketak barne hartzen dituen jarduera fisikoak bizi-kalitatean eta nekean duen eragina aztertzen ez dituzten ikerketak.

Guzti hau kontuan izanda, hasierarako bilaketa egin ondoren eta aipatutako iragazki eta irizpideei esker zenbait artikulua baztertu eta gero, azkenik, 19 artikulua aukeratu dira lan hau jorrazteko helburuarekin (Ikusi 2. Taula). Hauek, Haynes piramidean oinarritutako ebidentzia mailaren arabera sailkatu dira (Ikusi 1. Eranskina). Gainera, lanaren helburu orokor zein zehatzak betetzeko eta informazioa bereganatzeko, ikerketa guztien laburpen eskematikoa egin da (Ikusi 2. Eranskina).

Bestalde, aurretik adierazitako datu-baseetan lortutako artikuluez gain, beste hainbat web-orri ezberdinetan kontsultatu da baliagarria den informazioa lortzeko helburuarekin, hala nola:

- National Cancer Institute (NCI).
- American Cancer Society (ACS).
- Asociación Española Contra el Cáncer (AECC).
- Sociedad Española de Oncología Médica (SEOM).

**2.Taula.** Datu-base ezberdinetako bilaketak eta iragazkiekin lortutako artikulu kopuruak.

Datu-baseak	Hitz gakoak	Artikulu kopurua	Iragazkiak	Artikulu kopurua	Hautatutako artikuluak
<b>PubMed</b>	((("Lymphoma"[Mesh]) AND "Exercise"[Mesh]) AND "Quality of Life"[Mesh])	19	10 years English Humans	15	3
	((("Lymphoma"[Mesh]) AND "Nursing Care"[Mesh]) AND "Quality of Life"[Mesh])	9	10 years English Humans	3	0
	((("Lymphoma"[Mesh]) AND "Exercise"[Mesh]) AND "Nursing Care"[Mesh]) AND "Quality of Life"[Mesh])	0	10 years English Humans	0	0
	((("Lymphoma"[Mesh]) AND "Exercise"[Mesh]) AND "Fatigue"[Mesh])	12	10 years English Humans	9	3
	((("Leukemia"[Mesh]) AND "Exercise"[Mesh]) AND "Fatigue"[Mesh])	16	10 years English Humans	14	3
	((("Leukemia"[Mesh]) AND "Exercise"[Mesh]) AND "Nursing Care"[Mesh]) AND "Fatigue"[Mesh])	1	10 years English Humans	0	0
	((("Leukemia"[Mesh]) AND "Nursing Care"[Mesh]) AND "Quality of Life"[Mesh])	17	10 years English Humans	6	1
<b>BVS</b>	(lymphoma) AND (exercise) AND (quality of life)	115	10 years	92	2
	(lymphoma) AND (exercise) AND (nursing care) AND (quality of life)	5	10 years	5	0
	(lymphoma) AND (exercise) AND (fatigue)	77	10 years	55	2

	(lymphoma) AND (exercise) AND (nursing care) AND (fatigue)	6	10 years	4	0
	(leukemia) AND (exercise) AND (fatigue)	69	10 years	55	2
	(leukemia) AND (exercise) AND (nursing care) AND (fatigue)	4	10 years	3	0
	(leukemia) AND (exercise) AND (quality of life)	116	10 years	90	2
<b>Dialnet</b>	lymphoma AND exercise AND quality of life	1		1	0
	leucemia AND ejercicio fisico AND calidad de vida	3		3	0
	linfoma AND ejercicio físico AND atención de enfermería AND calidad de vida	0		0	0
	leucemia AND ejercicio físico AND atención de enfermería AND calidad de vida	0		0	0
<b>Cochrane</b>	(lymphoma) AND (exercise) AND (quality of life)	4	10 years	4	1
<b>Cuiden</b>	linfoma AND ejercicio físico AND calidad de vida	0		0	0
	leucemia AND ejercicio físico AND calidad de vida	0		0	0

**Iturria:** propioa.

#### 4. Emaitzak

**4.1. Linfoma eta leuzemia minbizia duten pazienteen bizi-kalitatean eta nekean erizaintza zainketak barne hartzen dituen jarduera fisikoak duen eragina.**

Helburuen emaitza lantzeko, guztira 19 artikulua erabili dira, hauetatik 10 artikulua izan dira erizaintza zainketak barne hartzen dituen jarduera fisikoak

bai bizi-kalitatea zein nekean duen eragina aztertu dutenak (13,19,21,22,26-31), beste 8 artikuluek soilik nekean duen eragina aztertu dute (14,16-18,20,23-25) eta batek bizi-kalitatean duen efektua aztertu du soilik (15).

Horietatik, erizaintza zainketaren barne dauden eta geroago aztertuko diren jarduera fisikoko programak leuzemia eta linfoma minbizia duten pazienteen, bai nekea murriztea zein bizi-kalitatea hobetzea lortzen dutela aztertu da sei artikuluetan (13,19,21,27,28,31). Alde batetik, zenbait ikerketek nekearen murrizketa esanguratsua behatu duten arren, jarduera fisiko programak bizi-kalitatearen hobekuntzan eragina ez duela azaltzen dute (16,18,23-26,29). Bestalde, ikerketa bakar bateko pazienteek adierazten dute bizi-kalitate hobekuntza nabaritu izan dutela eta jarduera programen ondoren paziente hauen nekearen murrizketarik ez da lortzen (15).

Azkenik, badira zenbait ikerketa hobekuntza gabeko emaitzak lortzen dituztenak (14,17,20,22,30). Hauetan, ikerketa egiteko lagin moduan erabili diren pazienteek, zenbait eskala edo galdeketen bitartez, adierazten dute haien nekea eta bizi-kalitatea jarduera fisiko programa hasieran eta honen amaieran antzekoa dela, hau da, hauen arteko aldea ez dela adierazgarria. Bestetik, ikerketa bateko pazienteek, programaren amaieran nekearen areagotze adierazgarria aipatzen dute (14).

Esan bezala, ikerketa hauek zenbait eskala eta galdetegi erabili dituzte pazienteen nekea eta bizi-kalitatea neurtzeko. Bizi-kalitatearen neurketari dagokionez, EORTC QLQ-C30 (10) (Ikusi 3. Eranskina) eskala da erabiliena ikerketa ezberdinen artean (13,15,29,31). Hala ere, pediatriako paziente edo gazteak ikertzerako orduan, PedsQL (11) (Ikusi 4. Eranskina) izeneko eskala izan da erabiliena (27,28,30). Bestalde, nahiz eta FACT-G7 eta PROMIS (Patient-Reported Outcomes Measurement Information System) izeneko eskalak gutxiago erabili, hauek ere, nekearen eta bizi-kalitatearen neurketarako balio izan dute (19,21,26). Nekearen neurketari dagokionez, *Multidimensional Fatigue Inventory* (MFI) (12) (Ikusi 5. Eranskina) (14,22,27) eta 0-10 arteko puntuaketa erabiltzen duen "Escala

*de calificación subjetiva*” dira eskala ohikoenak (16,24). Beste ikerketa batzuek ordea, zenbait galderen bitartez neurtu dute laginen nekea, hala nola, ea aurreko bi asteetan nekatuta sentitu diren, edo eguneroko oinarrizko jarduerak egiteko arazoak izan dituen azkar nekatzen zelako, edo egunez lo egin behar izan duen, edo huts eginda sentitzen ote zen egin nahi zituen gauzak egiteko, edo nekearen ondorioz bere gizarte-jarduerak mugatu behar ote zituen (17). Azkenik, “Fatigue Assessment Scale” (18), “Childhood Fatigue Scale” (20), “Fatigue Questionnaire” (23) eta “Brief Fatigue Inventory” (25) izeneko eskalak gutxien erabilitakoak izan dira.

#### **4.2. Nekea eta bizi-kalitatearen hobekuntza ikertzeko lantzen diren erizaintza zainketak barne hartzen dituen jarduera fisiko programa mota ezberdinak aztertzea, hauen intentsitatea eta denboraren arabera.**

Artikulu askok bat egiten dute programa hauek lantzeko sistemarekin. Izan ere, lortutako artikuluetatik %84ak, hau da, 16 artikuluek jarduera fisiko aerobikoak lantzen dute (13,15-19,21-23,25-31). Horietatik, 10 ikerketek haien programetako jarduera fisiko aerobikoak indar ariketekin bateratzen dituzte (13,15,16,19,22,23,26,28,29,31); beste 6 artikuluetako programek, soilik jarduera fisiko aerobikoa lantzen dute (17,18,21,25,27,30). Horietaz at, beste zenbait artikuluek ez dute jarduera fisiko programa zehatz bat, baizik eta ikerlariak pazienteen egunerokotasunean burutzen duten jarduera fisikoa aztertzen dute (14,20,24). Badira ere, aurreko programekin batera, zenbait ikerketa oreka ariketak eta malgutasun edo luzaketa ariketak lantzen dituztenak (13,15,19).

Jarduera fisiko aerobikoen artean, gehien lantzen diren ariketak ibiltzea, bizikleta, korrika egitea eta igeriketa dira. Indarra lantzen duten jarduerak jorratzerakoan, pisuarekin egiten diren ariketan lantzen dira, gainera, goiko eta beheko gorputz adarrak bereizten dituzte. Bestalde, jarduera hauek gorputzeko muskulu-talde handiekin jorratzen dira, izan ere, hauek dira egunerokotasunean egiten diren esfortzuetan gehien lantzen direnak (16,22).

Jarduera fisiko aerobikoa bakarrik jorratzen duten sei ikerketen artean, lau artikulu izan dira nekearen murrizketa zein bizi-kalitatearen hobekuntza lortu dutenak (18,21,25,27), beste bi ikerketek ordea, ez dute hobekuntzarik lortu (17,30). Bestalde, jarduera fisiko aerobikoa indar ariketekin batera lantzen dituzten programen artean, ikusi da bizi-kalitatearen hobekuntza eta nekearen murriztea lortzen dutela (13,15,16,19,23,26,28,29,31), izan ere, bakarra izan da hobekuntzarik lortu ez duen ikerketa (22).

Programa gabeko ikerketen artean lortutako emaitzak, ez bizi-kalitatean, ez nekean, ez dute hobekuntzarik lortu bi kasuetan (14,20). Beste kasuan ordea, nekearen murrizketa azaltzen du (24). Azkenik, gutxi diren arren, oreka eta malgutasun ariketak lantzen dituzten programetako pazienteek bizi-kalitatea eta nekearen murrizketa adierazten dute (13,15,19).

Intentsitateari dagokionez, orokorrean, baxu edo neurrizko intentsitateak lantzen dira. Honen kontrola bihotz-maiztasunaren (BM) bitartez egin da landutako artikulu gehienetan (15,16,23,26,30). Hauetan, gehiengo BM neurriak %40-70 artean mantentzen dira programan zehar.

Programaren iraupenari dagokionez, ikerketen artean denborarekiko ezberdintasun handiak suertatu dira. Izan ere, programa laburretan, galdetegi ezberdinen bitartez azkeneko 24 orduetan, 5 edo 7 egunetan egindako jarduera fisikoa aztertzen dituzten ikerketak daude (14,20,21,24,25). Beste batzuek, 4 asteko programak lantzen dituzte (26), eta beste zenbaitek bi hilabeterainoko luzeera duten programak jorratzen dituzte (16,27). Programa luzeen artean 12, 18, 36 asteetako edota minbiziaren diagnostikoa egin eta hurrengo 1-5 urteetako programak ere lantzen dira (13,15,17,18,22,28,30). Hala ere, beste 4 artikulek ez dute programaren iraupena aipatzen (19,23,29,31).

Programa laburren artean, bi ikerketa izan dira erizaintzak barne hartzen dituen jarduera fisikoen bitartez nekean eta bizi-kalitatearen hobekuntzarik lortu ez dituztenak (14,20). Azkenik, programa luzeak jorratu dituztenetan, hiru ikerketaren emaitzek ez dute hobekuntzarik aztertu (17,22,30).



#### **4.3. Erizaintza zainketak barne hartzen dituen jarduera fisikoak, egoera fisikoan eta afektibitate-egoeran duen eragina aztertzea.**

Nahiz eta ikerketa honen helburu nagusia erizaintza zainketak barne hartzen dituen jarduera fisiko programak nekean eta bizi-kalitatean duen eragina aztertzea izan, jarduera fisiko programa hauek aurrera eramateak beste zenbait onura eragin ditzake leuzemia eta linfoma duten pazienteetan.

Jarduera fisikoko programa ezberdin hauen bitartez, pazienteen funtzio fisiko eta funtzionalaren hobekuntza nabarmena aztertu da hainbat ikerketetan (13,16,28), horrela, eguneroko oinarritzko ekintzetan hobekuntza nabarmena azalduz.

Bestalde, linfoma eta leuzemia minbizia pairatzen duten pazienteen artean asko ikusten diren mina, loaren nahasmendua eta antsietate edota depresioa bezalako arteen ere, hobekuntza nabaria izan dela aztertzen da (13,15,26,29,31). Gainera, gaitasun emozionalean eta sexualitate arloan hobekuntzak aurkitu direla aztertzen dute zenbait artikuluek (13,16,31).

Nekearen murrizketa nabaritu duten pazienteek, honen geroztik, haien bizitzaren egoera psiko-sozialaren hobekuntza antzeman dutela diote (13,16,31).

Azkenik, ikerketa bakar batek, immunitate sisteman, idorrerian eta oxigeno saturazio neurrietan jarduera fisikoak onura dakarrela aztertzen du (15). Aztertutako beste 12 ikerketetan ez da aztertu erizaintza zainketak barne hartzen dituen jarduera fisikoak egoera fisikoan eta afektibitate-egoeran duen eragina (14,17-25,27,30)

#### **4.4. Linfoma eta leuzemia minbizia duten pazienteen artean erizaintza zainketak barne hartzen dituen jarduera fisikoak duen eragina alderatzea.**

Linfoma eta leuzemia minbizia pairatzen duten pazienteak aukeratu dira lagin gisa ikerketa honen helburuak zehazteko. Horretarako egin den

bilaketa bibliografikoan linfoma minbizia aztertzen duten 12 ikerketa aukeratu dira (13-23,31) eta leuzemia minbiziaren kasuan, 9 ikerketa aukeratu dira (20,23-30). Linfoma minbizia ikertu dutenen artean, 10 artikuluek ez-Hodgkin linfoma duten pazienteetara bideratu dute ikerketa (13,15,16,18-23,31), eta 4 ikerketek linfoma Hodgkin minbizi motara bideratu dute ikerketa (14,16,17,18).

Linfoma minbizia aztertzen duten artikuluen artean 8 ikerketek aztertu dute erizaintzak barne hartzen dituen jarduera fisikoen bitartez nekearen murrizketa eta bizi-kalitatearen hobekuntza esanguratsuak. Beste 4 artikuluek ez dute hobekuntzarik azaldu. Leuzemia minbizian ordea, 7 ikerketek lortu dituzte emaitza onuragarriak (23-29) eta 2 izan dira hobekuntzarik gabeko ikerketak (20,30).

Azkenik, linfoma mota ezberdinetan oinarrituz gero, ez-Hodgkin linfoma ikertzen dutenen artean bi artikulua izan dira neke murrizketa eta bizi-kalitatearen hobekuntzarik gabeko emaitzak lortu dituztenak (20,22). Bestalde, Hodgkin linfoman oinarritzen diren ikerketen artean ere, bi izan dira hobekuntza gabekoak (14,17).

## 5. Eztatbaida

Hainbat eztabaida sortu dira linfoma eta leuzemia duten pazienteetan jarduera fisikoak duen eraginaren inguruan. Artikulu gehienak, jarduera fisikoko programa jorratu dutenen artean nekearen murrizketa eta bizi-kalitatearen hobekuntza esanguratsua dela behatu dute (13,15,16,18,19,21,23-29,31). Bestalde, beste zenbait artikuluen arabera, jarduera fisiko programak ez dute paziente hauen nekea murrizten ezta ere haien bizi kalitatea hobetzen (14,17,20,22,30); gainera, de Lima eta lankideen ikerketak dio, programa hauek nekearen areagotzea eragiten dutela (14). Hala eta guztiz ere, proportzionalki, gehiago dira hobekuntzak lortu dituzten ikerketak.

Aitzitik, jarduera fisikoko programa ezberdinetan oinarrituz gero, aztertu daiteke emaitza onuragarrienak jarduera fisiko aerobikoa eta indar ariketak jorratu dituztenak izan direla, izan ere, bi jarduera hauek bateratzerakoan nekearen murrizketa eta bizi-kalitatearen hobekuntza esanguratsua dela aztertu da (13,15,16,18,19,21,23,25-

29,31). Gainera, argi aztertu da programa zehatzik ez dituzten ikerketak, hau da, egunerokotasunean zentratzen direnak, hobekuntza gabeko emaitzak lortu dituztenak izan direla (14,20). Hau kontuan izanda, jarduera fisikoa eta nekearekin bat egiten duten erizain-diagnostiko ezberdinak bildu daitezke (Ikusi 3. Taula). Aldi berean eta errebisioaren helburu nagusia betetzeko asmoarekin, hau da, nekea murrizteko helburuarekin, erizain-interbentzio ezberdinak planteatu daitezke (8).

**3. Taula.** Erizain-diagnostiko eta – interbentzioak NANDAren arabera.

DOMAINUA	ERIZAINNTZA-DIAGNOSTIKOA	HELBURUA (NOC)	ERIZAINNTZA-INTERBENTZIOA (NIC)
4. Ariketa fisikoa/ atsedena	[00093] Nekea	[0005] Jardueraren tolerantzia.	[201] Jarduera fisikoa sustatzea: indar-entramendua.  [221] Jarduera fisiko terapia: ibiltzea.  [4310] Aktibitate terapia.
		[0001] Erresistentzia	[5612] Hezkuntza: agindutako ariketak.  [0226] Jarduera fisiko terapia: muskuluen kontrola.

**Iturria:** propioa.

Erizaintza zainketak barne hartzen dituen jarduera fisikoko programen iraunkortasunari dagokionez, programa luzeak izan direla hobekuntza gabeko emaitza gehienak lortu dituztenak (17,22,30); izan ere, horrelako programa luzeak aurrera eramaterakoan, pazienteen atxikipena urria izan da, modu honetan programaren ebaluazioan eraginez.

Jarduera fisikoko programa hauek egoera fisikoan eta afektibitate egoeran izan duten eraginari dagokionez, argi ikusi daiteke indar ariketak joratu dituztenen artean funtzio fisikoak eta gaitasun funtzionalak hobekuntza nabaria izan duela, eta hori oso lagungarria izan daiteke egunerokotasunean burutzen diren jardueretan (13,16,28). Gainera, aztertu den moduan, gaitasun emozionalean eta minbizia duten pazienteen artean hain ohikoa den mina bezalako sintoma batean ere, onurak eragiten ditu

programaren jorratzeak, eta horrek bizi-kalitatean eragin oso positiboa izan dezake (13,15,16,26,31).

Linfoma eta leuzemia duten pazienteen artean jarduera fisikoak duen eragina konparatuz gero, ikusi daiteke leuzemia dutenetan emaitza positibo gehiago aurkitu direla linfomarekin alderatuta. Linfoma duten pazienteen artean, ez-Hodgkin linfoma eta Hodgkin linfoma bereizi dira eta aztertu da bien artean nekea murriztea lortu ez duten artikuluko kopurua berdina dela (14,17,20,22). Hala ere, kontuan izanda Hodgkin linfoma duten pazienteekin egindako ikerketa kopurua oso murriztua dela, proportzionalki, jarduera fisiko programa aurrera eraman duten eta Hodgkin linfoma duten pazienteen artean, emaitzen erdia hobekuntza gabekoa izan da, hau da, hauen %50a.

Azkenik, aipatu beharra dago, programa hauek era egokian aurrera eramateko erizaintza arloaren artean, heziketa edo prestakuntza saioak antolatu beharko lirakeela. Honen bitartez, linfoma eta leuzemia duten pazienteen osasuna bermatu eta gaixotasun prozesuan zehar ahalik eta bizi-kalitate onena sustatu ahal izateko. Gainera, gai honen inguruko ikerlan gehiago egin beharko lirake, izan ere, datu base ezberdinetan egindako zazpi bilaketetan ez da emaitza ezta informazio baliagarririk lortu (Ikusi 2. Taula). Aipatu beharra dago ere, Hooke eta lankideen (20) ikerketak dion moduan, iraganeko ikerlanetan ikuspuntu integral eta multidisziplinari bat eduki behar da, erizain eta beste zenbait profesional askorekin osatutako taldeekin lan eginez.

## **6. Ondorioak**

Bilaketa bibliografikoa egin eta gero, atera diren ondorioen artean, nabarmenak dira emaitza onuragarriak, hau da, erizaintza zainketak barne hartzen dituen jarduera fisikoko programen jorratzeak eragiten dituen hobekuntzak, bai bizi-kalitatearen hobekuntzan zein nekearen murriztean.

Erizaintza zainketak barne hartzen dituen jarduera fisikoko programei dagokionez ondoriozta daiteke aerobikoa eta indar ariketak direla eraginkorrenak, gainera, bi programa mota hauek bateratzeak eragin positiboa duela ikusi da. Programaren iraunkortasuna ordea pazienteen atxikimenduari zerikusia duela ikusi da, izan ere, programa luzeetan pazienteen jarraipena urria izatearen ondorioz, hobekuntza

gabeko emaitza gehiago daudela azaldu da. Guzti honen harira, erizaintzaren rola sustatzea garrantzitsua da pazienteen atxikimendua lantzeko helburuarekin. Horretarako, minbiziarekin erlacionatutako nekea murrizteko eta pazienteen bizi-kalitatea hobetzeko planteatutako jarduera fisikoko programak aurrera eramateko leku edo eremu aproposena, beharrezko ekipamendua duen areto edo gimnasio bat izango litzateke. Honez gain, pazienteei balorazio bat egin ahal izateko eta aurretik aipaturiko eskala edo galdetegiak betetzeko kontsultaren beharra izango du erizainak, modu honetan era lasaian elkarrizketaren bitartez pazienteen emaitzak baloratu ahal izateko.

Nekea eta bizi-kalitateaz at, badira beste zenbait arlo ikerlanetan aztertuak izan direnak eta erizaintza zainketak barne hartzen dituen jarduera fisikoaren ondorioz eragin positiboak jasan dituztenak. Hala nola, funtzio fisikoa eta gaitasun emozionalaren hobekuntza nabarmena izan da, baita nekea, antsietatea, depresioa eta beste zenbait arloetan ere. Honek guztiak, pazientearen egunerokotasunean eragin esanguratsua dakar.

Leuzemia eta linfoma minbiziak alderatzerakoan, argi azaldu da leuzemia minbizian hobekuntza gehiago ikertu direla nekea eta bizi-kalitateari dagokionez. Bestalde, Hodgkin linfoma ikerketa kopuru murriztua ikusi eta proportzionalki hobekuntza gabeko emaitza kopuru handia aztertu eta gero, ondorioztatu daiteke ikerlan gehiago egin beharko liratekela minbizi mota honen inguruan.

